

Cavero eta Autonomiaren neurriak

Deia, 1977-08-18.

Bi ministro gipuzkoar izan berriak ditugu Donostian.

Bata, Oreja jauna, Madrid-en jaio bazen ere, gipuzkoarra da jatorriz, eta bestea, Cavero jauna, Madrid-en hezia izan bada ere, Donostian jaio zen. Nolabait gipuzkoar bezala jo genitzake neurri batean biak. Eta euskal erakunde nagusietako gizonak mahi inguruan bildu zituztenean, Gipuzkoari nolabaiteko zerbitzu bat egiteko asmoa izango zutela uste dut.

Eta egin ere egin zituzten agindu tinkoak.

Ikastoletarako diru laguntza batzu aitortu eta beste batzuentzat bideak ireki zituzten; eskola ofizialetan euskera sartzeko bideak egiteko ere jokaera baiezkor eta arretatsua erakutsi zuten.

Pozgarri zaigu hau esatea.

Baina sortu zen han beste hauzi larri baten kezka: Unibertsitatea.

Cavero jaunak, Gipuzkoarako Medizina-ikastetxe bat eskaini zuen; eta aurrerantzeko eskualde honetarako Unibertsitate baten agintza egin zuen. Hau izan zen, laburki, esan zena. Baina entzuleak, edo batzu behintzat, zerbait gehiagoren zai zeuden, Euskaltzaindiak Madrid-era orain dela gutxi egin zuen eskabide baten erantzuna: Euskal Herrirako Distrito Unibertsitario bat.

Ministroa ez zen honetarako gertu etorri.

Ministro jauna, enkargu bat egitera bezalatsu etorria zen, nonbait: Gipuzkoako Unibertsitate baten beste harri bat jartzera.

Baina, noiz arte harriak bidean jartzen!

Batetik, zergatik Gipuzkoako Unibertsitate oso bat oraindik ez, hainbeste txikiago sortu eta gero!

Baina hau ez da dena.

Gipuzkorako Unibertsitatearen ikastetxe bat izan ditekeana Cavero-k eskeini zuanean, norbaitek esan zion, alegia, honen aurretik Euskal Herriko Unibertsitatearen Distrito baten beharra zela lehenbait lehen erabaki behar zena.

Eta hontan ari zirela Cavero jaunak esan zituen hitz batzu kezkatzen gaitu.

Esan zuenez, Autonomiak, etortzen zenean, ez ziola Euzkadi-ri Irakaskuntza-mailan Unibertsitatea bere izateko gaitasunik emango; maila nagusi hau Espainia-ko Estatuaren menpean geratuko dela.

Eta hau da, nere ustez, euskaldunok onartu ezin duguna.

Guk gutxienez 1936-an Errepublikak aitortu zigun Autonomiaren neurria lortu behar dugu oraingo hontan. Eta hemen, Eusko Jaurlaritza bera izan zen Euskal Herriko lehenengo Unibertsitatearen sortzaile, eta, dagokionez, hau osorik haren mende.

Iñigo Cavero-k, edo bere mandatariek, besterik pentsatzen badu jakin behar du gure artean ez duela hontan biderik egingo.

Orain arteko borrokak nahiko ez badira. Unibertsitateari buruzko bat, eta gogorra, ikusten dut begien aurrean.